

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 62/2021 Erabakia, otsailaren 16koa. Onestea Arabako ostalaritzaren sektoreari laguntzeko ezohiko laguntzen deialdia

Ostalaritzaren sektorea enpleguaren eta, oro har, ekonomiaren ehuneko esanguratsua da. Hala ere, dituen ezaugarriak direla eta (zatiketzea, etekin marjina txikiak...), oso hauskorra eta zaugarria da ziklo eta talka ekonomikoekiko.

Osasunaren Mundu Erakundeak COVID-19ak eragindako osasun publikoko larrialdi egoera nazioarteko pandemiatzat jo zuen 2020ko martxoaren 11n.

Beste lurralde batzuetan bezala, pandemia hori kalte handiak eragiten ari da Araban, eta jarduera ekonomikoa nabarmen eta nahi gabe murrizten ari da. Egoera hori zaila da guztiontzat, baina are larriagoa da ostalaritzaren sektoreko enpresa txikiaren eta banakako profesionalen kasuan, beste batzuek baino baliabide gutxiago baitituzte egoerari aurre egiteko.

Arabako Foru Aldundia jakitun da sektore hori zailtasunak izaten ari dela, eta komenigarritzat jotzen du neurri ekonomikoak hartzea, susperraldia errazteko, bideragarritasun ekonomikoa ziurtatu eta enplegua bermatzeko.

Horretarako, eta COVIDaren ondoriozko ekonomia suspertzeko A Planaren barruan, Arabako ostalaritzaren sektoreari laguntzeko ezohiko laguntzak abiaraztea aurreikusi du, gure turismo sektoreko enpleguari eutsi eta dinamizatzen laguntzeko, EAEko hainbat erakundek abian jarritako beste neurri eta jarduera batzuk ere osatuz.

Arabako Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez, onspena eman zien Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumenen eremuan emango diren dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrei.

Arabako Foru Aldundia Arabako Lurralde Historikoan digitalizazioa sustatzeko hartzen ari den neurriak kontuan hartuta, espedienteak izapidetzeko prozedura elektronikoa aukeratu da.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea ezohiko laguntzen deialdia Arabako ostalaritzaren sektoreari laguntzeko.

Bigarrena. Deialdia honako hauek arautzen dute: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak dirulaguntzak emateko aplikatzen diren oinarri orokor arautzaileek (Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua) norgehiagoka prozedurari dagokionez, eta ebazpen honen I. eranskinean xedatzen denak.

Hirugarrena. Ebazpen honetan araututako dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2021eko aurrekontuko 1.30.5.02.37.00.479.00.03 zenbakiko gastuen aurrekontu partidaren kargura ordainduko dira, eta gehienez ere 500.000,00 euro izango dira.

Deialdi honetarako zehaztutako aurrekontu partiden hasierako hornidura hasierako aurrekontuaren ehuneko 100 handitu ahalko da, gehienez, aurrekontu transferentzia egokien bitartez, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta honen aurka, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan dioenarekin bat etorriz, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Foruko Gobernu Kontseiluari, egintza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021ko otsailaren 16a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria

JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLS

ERANSKINA**EZOHIKO LAGUNTZEN DEIALDIA, ALARMA EGOERAREN ONDORIOZ ARABAKO
OSTALARITZAREN SEKTOREAN KALTETUTAKOEI LAGUNTZEKO****1. artikulua. Xedea**

Deialdi honen xedea da Arabako ostalaritzaren sektoreko pertsona fisiko edo juridikoei laguntzea, baldin eta emandako araudien arabera ixteak edo ordutegiak eta/edo edukierak aldatzeak eragin badie.

2. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbateko osoa

2.1. Foru Agindu honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldiko aurrekontuetako partida honen kontura ordainduko dira: 1.30.5.02.37.00. 479.00.03, hornitua 500.000,00 euroko zenbatekoaz.

2.2. Deialdi honetarako zehaztutako aurrekontu partidaren hasierako zuzkidura handitu ahalko da, hasierako aurrekontuaren ehuneko 100eraino, kasuan kasuko aurrekontu transferentzien bidez, baldin eta geldikinik bada Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan.

3. artikulua. Onuradunak

3.1. Jatetxe arloko establezimenduen (jattetxeak, tabernak, kafetegiak eta antzeko establezimenduak) titular diren pertsona fisiko edo juridikoei jaso ditzakete laguntzak, baldin eta jendearentzat oro har irekita dauden establezimendu finkoak badira, eta tokian bertan kontsumitzeko otorduak eta edariak eskaintzen badituzte modu profesional eta ohikoan.

3.2. Gainera, pertsona fisiko edo juridiko onuradun horiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 671, 672, 673, 676 edo 969.1 epigrafeetako batean alta emanda egotea (jattetxe, taberna, kafetegi, txokolategi, izozkitegi eta dantzalekuen otordu zerbitzuak).

Enpresa jardueraren egoitza fiskala Arabako Lurralde Historikoan egotea eta lantokia bertan egotea.

Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea, 58/2004 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, bai emateko ebazpenaren aurretik, bai dirulaguntza jasotzeko unean.

3.3. Berariaz baztertuta geratzen dira jarduera nagusitzat janaria ethez etxe banatzea, eramateko janari zerbitzua ematea edo ekitaldietarako janari prestatuak hornitzea duten establezimenduak (677 taldea).

3.4. Honako hauek ezingo dira onuradun izan: onarpen prozesuan edo funtzionamenduan sekuaren ziozko bereizkeria egiten dutenak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.2 artikuluan ezarritakoaren arabera; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. eta 3. paragrafoetan dirulaguntzen onuradun izateko aurreikusitako gainerako egoeraren batean daudenak; eta, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumenen esparruan ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorrak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren 3.3 eta 3.4 oinarrietan jasotako bazterkeria egoeretan daudenak.

3.5. Onartuko dira pertsona juridikoen edo norberaren konturako langile gisa (autonomoak) deialdi honetarako laguntzak banaka eskatzen dituzten pertsonak osatzen dituzten enpresen eskaerak, baldin eta bestelako negozioren ustiapenari badagozkio.

4. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

4.1. Honako gastu hauek diruz lagungarritzat joko dira ezarritako epeetan:

Lokala edo hiri finka alokatzeak dakartzan gastuak, baldin eta lokalaren errentatzailearekin bigarren mailarainoko odol edo ezkontza ahaidetasunik ez badago, eta errentatzaile gisa jarduten duen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide edo partaide ez bada.

Ostalaritza jarduera garatzen den lokala ordaintzeko hipoteka maileguen kuotak, interesak eta printzipalaren amortizazioa barne.

Langile Autonomoen Araubide Berezian (LAAB) norberaren konturako langile gisa kotizatze kuotak.

Elektrizitate, gas eta ur horniduren gastuak.

COVIDak ostalaritzako establezimenduetan duen eraginari lotutako aholkularitza eta kontsultoretza gastuak.

4.2. Tributuak diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira, baldin eta onuradunak ordaindu egiten baditu. BEZa eta gainerako zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, inolaz ere ez dira diruz lagunduko, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere ez.

4.3. Fakturatutako gastuak dirulaguntzaren xede diren gastuak egiteko finkatu diren aldian baino aldi handiagokoak badira, hurrengo artikuluan ezarritako gauzatze aldian sartutako fakturatutako egunen arabera hainbanatuko dira.

5. artikulua. Dirulaguntzaren xede diren gastuak egiteko epea

Deialdi honen onuradun diren erakundeentzako dirulaguntzaren xede diren gastuak eskatzaileari 2020ko azaroaren 1etik 2021eko martxoaren 31ra bitartean egotzitakoak izango dira, bi data horiek barne, salbu eta elektrizitate, gas eta ur hornidurako gastuak, horiek 2020ko azaroaren 1etik eskabidea aurkeztu den egunera bitartean ordaindutako gastutzat hartuko baitira, fakturatutako kontsumoen aldia ez badator bat adierazitako aldiarekin gorabehera.

Alarma egoera 2021eko martxoaren 31 baino lehen eteten bada, dirulaguntzaren xede diren gastuak bat etorriko dira 2020ko azaroaren 1etik alarma egoera eteten den egunera arte egindakoekin.

6. artikulua. Laguntzen zenbatekoak eta mugak

6.1. Ebazpen honetan jasotzen diren laguntzak diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 50eraino iritsiko dira.

Hala ere, deialdia ebatzitakoan, ez bada aurreko 2.1 artikuluan jasotako aurrekontu kreditua agortu, sortutako gerakina erabili ahalko da, hainbanaketaz ehuneko 70eraino gehitzeko onuradun bakoitzaren dirulaguntza ehunekoa.

6.2. Eskatzaile bakoitzeko gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoa honako banaketa honen arabera ezartzen da, langile kopuruaren arabera (autonomo kopurua gehi dagokion kontratazio kodeari lotutako batez besteko plantilla, 2019ko azaroaren 1etik 2020ko azaroaren 1era bitarteko aldiari dagokionez):

- 3 langile edo gutxiago dituzten eskatzaileak: 1.400,00 euro.
- 3 langile baino gehiago eta 6 langile edo gutxiago dituzten eskatzaileak: 1.800,00 euro.
- 6 langile baino gehiago dituzten eskatzaileak: 2.100,00 euro.

Eskatzaile fisiko edo juridikoak establezimendu batean baino gehiagotan langileak baditu, dagokion kontratazio kodearen kontura atxikitako langile guztiak hartuko dira langiletzat.

6.3. Kasu guztietan, guztizko langile kopuruan sartuko dira bai langile autonomoak bai eta soldatapekoak.

6.4. Laguntza eskatzen duen erakundea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste laguntza programa batzuetan laguntza baten onuraduna izan bada programa honen kontura onartutako proiektuen antzeko beste batzuetarako, diruz lagundu daitekeen oinarria egokitu egingo da, arautegi honetan ezarritako gehieneko dirulaguntza ez gainditzeko.

6.5. Eskaerak dirulaguntza jaso ahal izan dezan, esleipena egiten den unean proposatutako dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa 350,00 euro edo gehiago izango da.

6.6. Alokairuei, hipoteka maileguen kuotei eta norberaren konturako langile gisa kotizatzeari dagokien aurrekontu lagungarria kalkulatzeko, apartatu hauen batura egingo da:

2020ko azaro eta abendu eta 2021eko urtarrilekoak: eskaeran aurkeztu beharreko dokumentazioan adierazitako zenbatekoak, 8.4.a) apartatuan zehaztuta daudenak.

2021eko otsail eta martxokoak: bi hilabete horietako bakoitzerako, aurkeztutako 2021eko urtarrileko zenbateko bera.

Elektrizitate, gas, ur hornidura eta aholkularitza eta kontsultoretzari dagokien aurrekontu lagungarria kalkulatzeko, aurkeztu beharreko dokumentazioan adierazitako zenbatekoak batuko dira, 8.4.a) apartatuan zehaztuta daudenak.

7. artikulua. Prozedura bideratzeko eskumena duten organoak

7.1. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

7.2. Balorazio Batzordea honela egongo da osatuta:

Batzordeburua: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Kidea: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren burua, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

8. artikulua.– Eskaerak aurkezteko epea eta modua

8.1. Eskaerak elektronikoki aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen erregistro elektronikoa, betiere kontuan izanda zer xedatzen duen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak.

AFaren egoitza elektronikoa zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri elektronikoa baten edo BAKO sistemaren bidez: <https://web.araba.eus/es/sede-electronica/conoce-la-sede/como-accedo>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izaipide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoa: <https://web.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/baimenak>.

8.2. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da eta 2021eko martxoaren 18ko 14:00etan amaituko da.

8.3. Pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileak eskabide bakarra egin beharko du, jarduera egiten duen lokalen kopurua edozein dela ere.

8.4. Pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileek egoitza elektronikoa zehaztutako eskaera inprimakia bete beharko dute eta honako agiri hauek erantsi:

a) Aurrekontu lagungarria kalkulatzeko ziurtagiriak. Hauexek izango dira:

– Alokairu gastuetarako: 2020ko azaroko eta abenduko eta 2021eko urtarrileko fakturak.

– Hipoteka maileguen kuoten gastuetarako: 2020ko azaroan eta abenduan eta 2021eko urtarrilean eskatzaileari egotzitako banku karguak.

– LAABn norberaren konturako langile gisa kotizatzeako kuoten gastuetarako: 2020ko azaroan eta abenduan eta 2021eko urtarrilean eskatzaileari egotzitako kuoten ordainagiriak, aurreko likidazio aldiei dagozkienak izan ala ez.

– Elektrizitate, gas eta ur horniduren gastuetarako: 2020ko azaroaren 1etik eskabidea eta aurreko banku karguen fakturak edo ordainagiriak aurkeztu ziren egunera bitartean hornidura horiek ordaindu zireneko banku karguak, aurretik egindako gastuei dagozkienak izan ala ez.

– COVIDaren eraginari lotutako aholkularitza eta kontsultoretza gastuetarako: 2020ko azaroaren 1etik eskabidea aurkezten den egunera bitartean jaulkitako fakturak.

Ez da beharrezkoa izango banku ordainagirik eta karguek transferentzia egiten duen banku erakundearen zigilua izatea, diruz lagundu daitekeen aurrekontua kalkulatzeko egiaztagiriak aurkezteko fase honetarako.

Eskatzailearen izenean dauden fakturak eta banku karguak bakarrik onartuko dira diruz laguntzeko modukotzat.

Hipoteka maileguen kuoten gastuei dagokienez, eta banku transferentzian hipotekatutako lokalaren helbidea zehazten ez bada, ostalaritza establezimendua kokatuta dagoen lokalaren hipotekaren eskrituraren kopia edo dagokion egiaztagiriak erantsi beharko ditu onuradunak.

b) IFZ/NANA.

c) Ekonomia jardueren gaineko zergaren alta inprimakia, deialdi honetako 3.2 artikuluan aipatutako epigrafeetako batean, gutxienez.

d) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak jaulkitako ziurtagiria, non jasotzen baita kontratazio kodeari lotutako batez besteko plantilla 2019ko azaroaren 1etik 2020ko azaroaren 1era arteko epealdian. Eskatzailea alta eman bada 2020ko azaroaren 1aren aurreko urtean edo data horren ondoren, Gizarte Segurantzaren alta emandako egunetik eskaeraren dataren arteko batez besteko plantillaren ziurtagiria aurkeztu beharko da. Era berean, egun horien artean langilerik kontratatu ez bada, enpresaburu gisa erregistratuta egon ez dela adierazten duen txostena edo kotizazio kontuaren kodearen egoerari buruzko txostena aurkeztu beharko da.

8.5. Eskabide inprimaki elektronikoak eskatzaileak kudeatzen dituen establezimenduei buruzko datuak jasoko ditu: ostalaritza negozioak kokatuta dauden helbideak, establezimenduen izena, establezimenduaren alta data eta hari atxikitako enplegu kopurua.

8.6. Pertsona eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzako laguntza eskabidearen eredian identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako jakinarazpen guztiak.

8.7. Dirulaguntza eskabidea aurkezteak baimena ematen dio organo kudeatzaileari Ogasun, zerga egoitza eta Gizarte Segurantzarekiko egoeraren ziurtagiriak lortzeko.

8.8. Eskabidea behar bezala beteta ez badago, erakunde eskatzaileari 10 egun naturaleko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak bidaltzeko. Halaber, ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Jakinarazpenak eskabidean agertzen den helbidera posta elektronikoa bidalita egingo dira, jaso izanaren agiriarekin.

9. artikulua. Hautaketa eta balorazio irizpideak

9.1. Aurkeztutako eskaerak ondoko irizpideen eta puntuazioen arabera balioetsiko dira:

a) Establezimendua kokatuta dagoen udalaren biztanle kopurua (50 puntu gehienez).

BIZTANLE KOPURUA	PUNTUAK
8.000 biztanle edo gutxiago	50 puntu
8.001 eta 200.000 biztanle artean (biak barne)	30 puntu
200.000 biztanle baino gehiago	20 puntu

Eskatzaileraren batek establezimenduak udalerrri batean baino gehiagotan baditu, langile gehien dituen establezimenduaren udalerrria hartuko da kontuan irizpide hori aplikatzeko.

b) Erakunde eskatzailearen langileen plantillaren tamaina (gehienez 30 puntu). Atal honetan langile autonomoen eta kontratatutako pertsonen batura hartuko da kontuan, aurkeztutako plantillaren ziurtagiria ikusita.

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN BATEZ BESTEKO LANGILEAK	PUNTUAK
Langile bat edo gutxiago	30 puntu
Langile bat baino gehiago eta 2 langile edo gutxiago	27 puntu
2 langile baino gehiago eta 3 langile edo gutxiago	24 puntu
3 langile baino gehiago eta 4 langile edo gutxiago	21 puntu
4 langile baino gehiago eta 5 langile edo gutxiago	18 puntu
5 langile baino gehiago eta 6 langile edo gutxiago	15 puntu
6 langile baino gehiago	12 puntu

Autonomoren bat eskabide batean baino gehiagotan sartzen bada, dela bere izenean, dela enpresa batean edo gehiagotan, langile hori bakarrik zenbatuko da langile kopuru txikiena duen eskaeran.

c) Aurkeztutako eskaeran hura aztertzeko beharrezkoak diren agiri guztiak hasieratik bertatik aurkeztu izana (15 puntu gehienez).

Eskaera aurkezteko unean osorik aurkeztutako eskaerak	15 puntu
Osorik aurkeztutako eskaerak, lehen dokumentazio errekerimendu baten ondoren	7 puntu
Aurkeztutako gainerako eskaerak	0 puntu

d) Establezimenduaren alta data (5 puntu gehienez).

2020ko urriaren 25a baino lehen alta emandako establezimenduak	5 puntu
2020ko urriaren 25etik aurrera alta emandako establezimenduak	0 puntu

Eskaeran establezimendu bat baino gehiago sartzen bada, kontuan hartuko da establezimendu zaharrenaren alta data.

9.2. Onuradunak hautatzeko eta bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren seigarren oinarrian ezarritakoari jarraituko zaio.

10. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epealdia

10.1 Organo eskudunak, Balorazio Batzordearen proposamenez, dagozkion ebazpenak emango ditu. Ebazteko epea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera arautuko da.

10.2. Ebazpen horiek, ahal dela, baliabide elektronikoen bitartez jakinaraziko dira, eta ezinezkoa bada, gutun ziurtatuaren bidez, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoa aintzat hartuz.

10.3. Jakinarazitako ebazpen horrek administrazio bidea agortzen du, baina, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Foru Gobernu Kontseiluari, egintza

hau jakinarazi ondorengo egunean hasi eta hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegien aurrean, egintza hau jakinarazi ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

11. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa eta ordainketa

11.1. Dirulaguntzen likidazioa kasuan kasuko administrazio ebazpenean adierazten den bezala egingo da, bertan zehazten diren betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren.

11.2 Dirulaguntzak bitarteko elektronikoen bidez justifikatu behar dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoa.

Dirulaguntzaren justifikazio gisa elektronikoki aurkeztutako dokumentuek bat etorri beharko dute jatorrizkoekin, zeina interesdunaren esku egongo baita, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren eskura egon beharko dute hala eskatzen zaionean.

Bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.7 artikuluan ezarritakoarekin, erakunde onuraduna da aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa izatearen arduraduna.

11.3 Onuradunak justifikazio agiri hauek aurkeztutakoan ordainduko da dirulaguntza:

Diruz lagundutako gastuen zerrenda jasotzen duen idazkia, zenbatekoa (BEZarekin eta BEZik gabe, hala badagokio), jaulkipen data eta ordainketa data adierazita.

Esleitutako dirulaguntza justifikatzeko agiriak. Hauexek izango dira:

Alokairu gastuetarako: 2020ko azaroko eta abenduko fakturak eta 2021eko urtarrileko, otsaileko eta martxoko fakturak, eta faktura horien banku transferentziak, transferentzia egiten duen bankuaren zigilua jarrita.

Hipoteka maileguen kuoten gastuetarako: 2020ko azaroan eta abenduan eta 2021eko urtarrilean, otsailean eta martxoan eskatzaileari egotzitako ordainketaren banku kargua, transferentzia egiten duen bankuaren zigilua jarrita.

LAABen norberaren konturako langile gisa kotizatze gastuetarako: 2020ko azaroan eta abenduan eta 2021eko urtarrilean, otsailean eta martxoan eskatzaileari egotzitako kuoten ordainagiria, transferentzia egiten duen bankuaren zigilua jarrita.

Elektrizitate, gas eta ur horniduren gastuetarako: hornidura horien fakturak eta banku karguak, transferentzia egiten duen bankuaren zigilua jarrita.

COVIDaren eraginari lotutako aholkularitza eta kontsultoretza gastuetarako: fakturak eta faktura horien ordainketaren banku transferentziak, transferentzia egiten duen bankuaren zigilua jarrita.

Hauei buruzko informazioa jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena:

Aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta aurkeztutako kopia jatorrizko dokumentuekin bat datoze.

Dirulaguntza honetaz gain, hemen diruz lagundutako kontzeptuetarako beste diru sarrera edo dirulaguntza batzuk lortu diren. Baiezkoa bada, diru sarrera horien justifikazioa aurkeztuko da.

Ez dira dirulaguntza ordaintzeko justifikazio agiritzat hartuko diruz lagundu daitekeen aurrekontua kalkulatzeko eskaeran aurkeztu diren dokumentuak. Kasu horretan, onuradunak berriro aurkeztu beharko ditu fakturak eta/edo banku karguak, bankuaren zigilua jarrita, aurretik zehaztutako gainerako dokumentazioarekin batera.

Dirulaguntza ordaintzeko justifikazio agiri horiek aurkezteko azken eguna 2021eko uztailaren 31 da.

11.4. Gastu elektronikoen ordainagiriak aurkeztuz gero, horien formatua Factura-e estandarren arabera izango da.

11.5. Profesionalek emandako fakturen kasuan, erakunde onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, justifikatu beharreko dirulaguntza ordainduko da eta Arabako Foru Aldundiaren ardura izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta justifikazio txostena egitea. Baldin eta egiaztatzen bada egin beharreko atxikipenak ez direla sartu, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

11.6. Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2021erako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabaliua atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

11.7. Ordainketak arintzeko, zehaztutako epemugak baino lehenago aurkeztu ahal izango dira agiriak.

11.8. Justifikatutako gastuak, guztira, diruz lagundu daitekeen aurrekontua adinakoak izan beharko dira, gutxienez. Diruz lagundu daitekeen aurrekontu horretara iritsi ezean, dirulaguntza proportzioan murriztuko da, eta dagokion kopurua baliogabetuko da.

11.9. Hasieran onartutako diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren mugarekin, dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptu eta zenbatekoetan aldaketak onartu ahalko dira, dirulaguntza jasoko zuen kontzepturen bat egin gabe geratu bada ere. Betiere desbideratze horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren oniritzia beharko dute.

11.10. Dirulaguntza ordaintzeko aurreko paragrafoetan adierazitako dokumentazioa modu elektronikoa aurkeztuko da Erregistro Elektronikoan, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez, Administrazio Publikoaren Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa ere kontuan hartuz.

11.11. Baldin eta 6.2 artikuluan ezarritako dirulaguntza muga aplikatu bada, onargarria izango da diruz laguntzeko den gastuan murrizketak egitea, esleitutako dirulaguntza aldatu gabe, ordea; alabaina, beharrezkoa izango da betetzea dirulaguntzaren xedea, eta errespetatzea diruz lagundutako gastuaren gutxienerako zenbateko justifikatu beharrekoa, alegia, operazio honen emaitza: esleitutako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa zati aplikatutako dirulaguntza ehuneko.

11.12. Epe horiek igaro eta dirulaguntza ordaintzeko eskatutako agiriak aurkeztu ez badira, edo aurkeztu beharreko guztia aurkeztu ez bada, dirulaguntza gutxitu edo baliogabe utziko da, kasu bakoitzaren arabera.

11.13. Ezin izango da dirulaguntzaren ordainketa egin onuradunak Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak egunean ez baditu.

12. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

12.1 Oinarri arautzaile orokorrak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren hamabigarren oinarrrian ezarritakoa aplikatuko da. Gainera, jarduerak jaso ditzaketen gainerako laguntzak, edozein izanda ere horien izaera eta ematen dituen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira erabaki honetatik eratorritakoekin, baldin eta deialdi honetan laguntzen diren kontzeptu eta gastu lagungarrien laguntzen baturak ez badu gaintzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

Era berean, laguntza horiek bateragarriak izango dira onuradunak jaso ditzakeenekin deialdi honetan diruz lagundu ez diren beste gastu batzuegatik, bai eta osasun krisia kudeatzeko hartutako neurrien ondorioz jarduera murrizteak eragin duen galera ekonomikoa arintzeko jaso ditzakeen itzuli beharrik gabeko zuzeneko dirulaguntzak ematearekin ere.

12.2 Deialdi honetan ezarritako laguntzek errespetatu egingo dituzte Europako Batzordearen unean uneko erregelamendu indardunetan ezarritako "minimis" arauak. Ondorio horietarako, Europako Batzordearen abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoak, 3.2 artikuluan adierazten du estatu kide batek enpresa bakar bati emandako minimis laguntzen guztizko zenbatekoa ez dela izango 200.000,00 euro baino handiagoa hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan.

13. artikulua. Interpretazioa eta garapena

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru ebazpen hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro onartzeko.

14. artikulua. Azken klausula

Ebazpen honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arau orokorretan ezarritakoaren mendean dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mendean ere: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren arautegia; eta dirulaguntzei buruzko geroko xedapenak.

15. artikulua. Araubide juridikoa

Ebazpen honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaile orokorretan ezarritakoaren mende dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mendean ere: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentzien urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinak Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren araudia onesten baitu, eta dirulaguntzei buruzko geroko xedapen guztiak.